

Arrantzale hegalaria

Hondarribia, 10. zk., 1987-01: 6.

Askotan ikusten ditugu Hondarribiko itsasadarrean, Txingudiko badiatik behera, arrantzan dabilzan hegalaria beltzaran ilun batzuk: kaio zuriak bezala dakite ur gainean kulunkan egoten, baina kaioak ez bezala murgiltzen dira bertan eta beste nonbait, askotan urrun, agertzen dira bat batean itsaspeko txoriak.

Lehendabizikoz ikusten duenarentzat, harrigarria.

Eta ur gain-gainean hega polit eta azkarraz itsas sestran ibiltzen den hegaltia da.

Batzutan, bakarti; bestetan, bikotea; sei-zazpi elkarrekin jolasten ikusi izan ditut Butron ibiltokitik. Hondarribia bertako begiak ohituta daude mirari honetara; hala ere, lehorreko garenok ez gara behin eta berriz gertakariari begira nekatzen. Lehortar hau berez, edo ofizioz, ikusbera denez gero, galdezka ere jarria da. Eta bada, noski, txori berezi hauen izena ezagutzen duenik: "gabarrasa" da, esango dizu dakienak, eta "pottorro" ere deitzen diote batzuk.

Baduzu, beraz, nondik hasi bila, ni bezala kazetari bazara.

Azkuek, gabarrasari "*ubarroi* bolborin" deitzen dio; Lhandek, "*uharroia*, itsas-belea"; Kintana eta bestek egindako hiztegiak: "uherroi, pujanta". Ez dabilta hiztegiek bata bestearengandik urrun.

Martin Itziar Agirrek¹ bi neurritakoak bereizten ditu: *Ubarroi* handia, 0,90 zent.: "jantzi beltz azpi zuria du normalean –dio– baina ezkontzerako beste herri bat jazten du, zeharo beltza, gaitza eta lepopen zerrenda txuria, eta taldean hegoan dijoazenean, "V" ozkeituaz joan ohi dira".

Sail haundiek arkaitzetan egin ohi dituzte, kabiak.

Eta bestela –jarraitzen du poetikoki deskribatzen– *Ubarroi* balborin, 0,75 zent. luze. Honek bestearen antz handia du, txikitxoagoa izan arren. Honen ezkon-soinekoa zeharo beltza da, zati zuririk gabe, buru gainean, motots beltza tente jarriaz; inoiz bikote bakartiren bat ikusi ohi da, baina hauek ere itsasertzeko arkaitzetan, talde haundietan, egiten dituzte kabiak.

Lehen esan dugu, Hondarribian bi izen jaso ditugula *gabarrasa* eta *pottorroa*.

Jakin ahal izan dugunez, *gabarrasa* da hemengoa, hemen bizi eta ikusten duguna, *pottorroa*, berriz, txikiagoa da eta itsas-belea ere deitzen diote, eta beheruntz eta goruntz pasako hegaltia da; itsasgizonek diotenez, bere kantuak ekaitza iragartzen du.

Ez dakit Euskalerrian belearekin lotuta dugun beste esaera batek horrekin zerikusirik baduen: "Belak etxe baten inguruan hiru bira eginezkero, hiru asteren barruan norbait hilko da etxe atan".²

Neuk ARRANTZALE HEGALARIA izenburutzaz aukeratu dudanean, beste zerbaitek adierazi nahi nuen gainera. Nonbait. Txinan uharroi handia arrantza lanetarako erabili

¹ *Gure txoriak*. Kuliska sorta, 61. Itzaropena, Zarautz, 1966.

² *Euskalerraren jakintza*, I, 221.

ohi da: lepoan eraztun edo anilo bat jartzen diote, harrapatzen duen arraina irentsi ez dezan.

Ez da inoiz berandu gauza berriak ikasteko, eta hemen *gabarrasa* arrantza lanetan jartzeko.